

## UDALAK PANDEMIAREN URTEKO “BILBOKO OSPETSUAK” OMENDU DITU

- “Bilbotar peto-petoak” direla, lau sarituek (Estibaliz Barron, Gizakia Fundazioko zuzendaria, Fernando Canales sukaldaria, Itziar Lazkano antzezlea eta Arantza Matías Gurrea, merkataritza arloko tradizio luzearen ondorengoa) bete-betean irudikatzen dute Juan Mari Aburto Alkatearen esanetan “*Covid-19aren egun garratzak atzean uzteko ilusioa eta argia*”.

(*Bilbo, 2021eko otsailaren 8a*).- **Juan Mari Aburto** Alkatea buru, jendaurreko aintzatespena egin zaie gaur goizean, 2020ari dagozkion Bilboko Ospetsu berriei. Alkateak ekitaldiaren hasieran aitortu duenez, iazkoa “*oso urte zaila, desberdina eta gogorra izan da, inoiz ikusi ez dugun bezalakoa eta historian behin-betiko markatuta geratuko dena, izan ere, Covid-19 izeneko birus batek gure bizitzak goitik behera aldarazi ditu mundu osoan*”.

Pandemiari aurre egiteko ezarritako aforo-mugapenak tarteko, lau protagonista nagusi izan ditu Udaletxeko Arabiar Aretoan antolatutako ekitaldiak: Estibaliz Barron, Gizakia Fundazioko zuzendaria; Fernando Canales sukaldaria; Itziar Lazkano antzezlea eta Arantza Matias enpresaria. Alkatearen esanetan, Bilboko Ospetsu berriek, “*bilbotar peto-petoak, pandemiak arras zigortutako sektoreak ordezkatzeko dituzte: gizarte arloa, ostalaritza, kultura eta merkataritza*”.

Juan Mari Aburtok hitz gutxi batzuk eskaini dizkie Bilboko Ospetsu berriei, eta lehenik eta behin, Gizakia Fundazioko zuzendari Estibaliz Barronen “*ezohiko dedikazio eta eskuzabaltasun handia*” nabarmendu du, “*bihotz arras emankor eta sentikor batetik sortutako bokazioa, guk esan ohi duguna egia bihurtzea xede duena: inoiz inor atzean utzi gabe*”.

Alkatearen esanetan, Fernando Canales “*bere lanbideaz eta bizitzaz maiteminduta dagoen bilbotarra da, egin beharreko guztia ilusioz eta txinparta handiz egiten duena*”. Aburtok berriaz azpimarratu du “*Michelin izarrak eta bestelako sariak jaso dituen sukaldari handi honen izaera berritzaile eta egonezina*”, eta ostalaritzaren zein jatetxeen sektorea egun zailtasun handiak pairatzen ari den arren, “*ez dugu inoiz kexarik entzungo Fernandoren ahotik, aurrera jarraitzeko hitzak baizik*”.

Bilboko Alkateak Itziar Lazkano antzezle ezaguna ere zoriondu du, “*gu guztion bihotzetan egina duen ibilbibide luze eta bikainagatik*”, eta horrenbestez, “*Bilboko Ospetsua izatea merezi duela*” esan du, “*Itziarrek hain ondo ezagutzen duen Ramon Barea zinema eta antzerkiaren munduko beste antzezle handi horren antzera*”. Saridunari berari hitz eginez, Aburtok argi utzi dio: “*Ez izan zalantzarik, egoera honetatik aterako gara, eta zinema-aretoak eta antzokiak jendez beteko dira berriz ere, zure jardunaren distiraz goatzeko prest*”.

Era berean, Alkateak *“berrikuntza, erresilientzia eta modernizaziorako”* gaitasuna nabarmendu du, *“hainbat belaunalditan kalitatezko eta bikaintasunezko ehungintzaren negozioan jardun duen Bilboko familia ezagun bat ordezkatzeko duen”* Arantza Matiasen kasuan, eta sostengua adierazi dio Covid-19aren pandemiak gogor astindu duen merkataritza sektore osoari.

Azkenik, Juan Mari Aburtok adierazi du Bilboko Ospetsu berriak, *“esfortzuaren zein elkartasunaren eredu”*, bete-betean irudikatzen dutela *“Covid-19aren egun garratzak atzean uzteko ilusioa eta argia”*.

## EL AYUNTAMIENTO HOMENAJEA A LOS CUATRO NUEVOS “ILUSTRES DE BILBAO” DEL AÑO DE LA PANDEMIA

- **“De Bilbao de toda la vida”, las cuatro personas galardonadas (Estibaliz Barron, directora de la Fundación Gizakia, el chef Fernando Canales, la actriz Itziar Lazkano y Arantza Matías Gurrea, de larga tradición en el sector del comercio), representan “la ilusión y la luz con la que dejaremos atrás los días amargos del Covid-19”, en palabras del Alcalde, Juan Mari Aburto.**

(Bilbao, 8 de febrero de 2021).- El Alcalde, **Juan Mari Aburto**, ha presidido hoy el acto de reconocimiento público a los cuatro nuevos **Ilustres de Bilbao** correspondientes a **2020**, un año *“muy difícil, diferente y duro, como no habíamos visto nunca, que quedará marcado para siempre en la historia, porque un virus llamado Covid-19 llegó para alterar nuestras vidas en todo el mundo”*, según ha subrayado al comienzo de su intervención.

Marcado por las restricciones de aforo establecidas para combatir la pandemia, el acto ha tenido lugar en el Salón Árabe del Consistorio, con cuatro grandes protagonistas: la directora de la Fundación Gizakia, Estibaliz Barron, el chef Fernando Canales, la actriz Itziar Lazkano y la empresaria Arantza Matías. En palabras del Alcalde, estos nuevos Ilustres *“son de los de Bilbao de toda la vida y representan a sectores muy castigados por la pandemia: el ámbito social, la hostelería, la cultura y el comercio”*.

**Juan Mari Aburto** ha dedicado unas palabras a cada una de las personas distinguidas como nuevos Ilustres de Bilbao, destacando *“la enorme dedicación y generosidad”* de Estibaliz Barron, directora de la Fundación Gizakia, *“una vocación que brota de un corazón muy generoso y sensible, y hace realidad lo que nosotros siempre decimos: no dejar nunca a ninguna persona atrás”*.

El Alcalde ha calificado a Fernando Canales como *“un enamorado de su profesión y de la vida, que todo lo que hace lo hace con ilusión y también con mucha chispa”*. Tras subrayar el carácter *“innovador e inquieto”* de este *“gran chef premiado con los mejores galardones, entre ellos las Estrellas Michelin”*, Aburto ha recordado la difícil situación actual del sector de la hostelería y la restauración, *“pero nunca oiremos de labios de Fernando una queja, sino el lema de seguir adelante”*.

La felicitación del Alcalde de Bilbao se ha extendido también a la conocida actriz Itziar Lazkano, *“con una larga y sobresaliente trayectoria en los corazones de todos nosotros”*, que se convierte en *“nueva y merecida Ilustre de Bilbao, como Ramón Barea, otra figura del cine y del teatro que Itziar tan bien conoce”*. Dirigiéndose a la propia galardonada, Aburto ha asegurado: *“No lo dudes, saldremos de esta, y los cines y los teatros volverán a llenarse y a brillar con tu actuación”*.

Asimismo, el Alcalde ha destacado la capacidad de *“innovación, resiliencia y modernización”* de Arantza Matías, representante de una *“dinastía familiar dedicada al negocio de los tejidos en Bilbao, sinónimo de calidad y buen hacer”*, y ha mostrado su apoyo al mundo del comercio en su conjunto, especialmente afectado por la pandemia del Covid-19.

Finalmente, Juan Mari Aburto ha asegurado que los nuevos Ilustres de Bilbao, *“ejemplo de esfuerzo y solidaridad”*, representan *“la ilusión y la luz con la que dejaremos atrás los días amargos del Covid-19”*.